

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



## **CEINPROKO IKASLEEN ERAKUSKETA CRISTINA ENEAN, DONOSTIA ZERO PLASTIK KANPAINARI BURUZ**

Cristina Enean dagoen Ingurumen Baliabideen Zentroan Ceinproko Diseinuko ikasleen erakusketa dago.

Ekologia zinegotziak, Marisol Garmendia sozialistak, adierazi duenez, "diseinatzaile gazte horiek erakusketa batean San Sebastián Zero Plastik kanpaina garatzeko udalaren enkarguz egin zituzten sorkuntza eta lan guztiak erakusteko aukera izatea nahi izan dugu. Horren bidez, ingurumenari eta, bereziki, gure itsasoei kalte egiten dieten erabilera bakarreko plastikozko ontziak murrizteko beharraz kontzientziatu nahi genuen".

Erakusketan, karteletan, ehunezko material birziklagarritzko poltsetan, kamisetetan eta bestelako sorkuntzetan (besteak beste, botilen eta plastikozko ontzien hondarrez egindako "arrainez eta beste itsas espezie batzuez" betetako sare batean) jasotako lanak daude ikusgai. Kanpainarako aukeratutako logoa ere tamaina erraldoian sortu dute, plastikozko tapoiekin.

Urte amaierara arte egongo da zabalik Cristina Eneako erakusketa-espazioan, 1. solairuko tunelean.